

# HAUR HEZKUNTZA GRADUA

**Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatea**

2019-2020 ikasturtea



**HEFA II: Oñati plaza 3, Donostia**



HEZKUNTZA, FILOSOFIA  
ETA ANTROPOLOGIA  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE EDUCACIÓN, FILOSOFÍA  
Y ANTROPOLOGÍA

## AURKIBIDEA

---

1.-Sarrera .....	3or.
2.-Haur Hezkuntza Graduari dagozkion kompetentziak .....	3-5 or.
3.-Burutu beharreko lanaren ezaugarriak.....	5-10 or.
3.1 Taldeen egitura eta osaketa	
3.2 Lan proposamenak: bloga, narratiba digitala eta egile testua	
3.3 Lan tartekatuak	
3.4 Entregatu beharreko lanak	
3.5 Aurkezpena eta feed-back-a irakasle tutoreekin (prozesuaren ebaluazioa)	
4.-Lan prozedura eta egutegia.....	10-11
5.-Ebaluazioa.....	11-12

### Eranskinak

*I ERANSKINA: taldea izendatzeko fitxa eredu*

*II ERANSKINA: talde lanaren inguruko hausnarketa, konpromisoak eta errubrika*

*III ERANSKINA: moduluaren ebaluazioa taldekoa*

*IV ERANSKINA: aurkezpen saioa: taldeen arteko ebaluazioa*

<b>Moduluaren koordinatzailea:</b>
------------------------------------

<b>Esti Amenabarro Iraola (<a href="mailto:estibaliz.amenabarro@ehu.eus">estibaliz.amenabarro@ehu.eus</a>)</b>
--

<b>Didaktika eta Eskola Antolakuntza (2.01 bulegoa)</b>
---

### Moduluaosatzen duten irakasle taldea:

Gizarte eta Kultura Ingurunearen ezagutza. <b>Bertha Echeberria</b> <a href="mailto:berta.echeberria@ehu.eus">berta.echeberria@ehu.eus</a>
Eskola Inklusiboaren Oinarriak. <b>Esti Amenabarro</b>
Informazio eta Komunikazio Teknologiak. <b>Nere Amenabar</b> ( <a href="mailto:nere.amenabar@ehu.eus">nere.amenabar@ehu.eus</a> ), <b>Josemi Correa</b> ( <a href="mailto:jm.correagorospa@ehu.eus">jm.correagorospa@ehu.eus</a> )
Haur Hezkuntzarako Hizkuntzaren Didaktikaren Oinarriak testuinguru Eleanitzetan. <b>Beñat Sarasola</b> ( <a href="mailto:benat.sarasola@ehu.eus">benat.sarasola@ehu.eus</a> )

## 1.-SARRERA

Gero eta aldakorragoa den gizarte eremuan, eskola -irakaskuntzaz eta ikaskuntzaz haratago doan- espazio moduan, asko aldatzen ari da. Etengabe aldatzen ari dela esan genezake. Aldaketa horien oinarrietako bat, eskolan barne biltzen diren pertsonak gero eta askotarikoagoak izatean datza. Aniztasun hori oso izaera desberdinetakoa da gainera. Horregatik beharrezkoa dugu batetik aniztasuna kontzeptu gisa lantzea eta bestetik aniztasuna aintzat hartuta gure inguru hurbilean dauden praktika egokien azterketa egitea.

Guzti horretarako, modulu honetako irakasle taldeak aniztasun kontzeptura hurbilpen ahalik eta sakonena egiteko baliabideak eskainiko ditu, bai eta diziplinarteko lan hau egiteko behar diren aholku eta laguntza eskaini ere. *Helburua: aniztasunaren inguruan burutzen diren egitasmoak oinarri hartuta, hausnarketa lan bat egitea.*

Ikasketa plangintzan aurre ikusten da ikasleek, ANIZTASUNA ETA HEZKUNTZA ardatz hartu eta bigarren lauhileko irakasgaien ekarpenak jasoaz, diziplinarteko lan bat garatzea. GIDA honetan zehazten dira lan horren nondik norakoak.

*Eskola Inklusiboaren Oinarriak, Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezagutza, Informazio eta Komunikazio Teknologiak (IKT) eta Haur Hezkuntzarako Hizkuntzaren Didaktikaren Oinarriak testuinguru eleaniztetan* irakasgaien irakasle-taldeak lan hau proposatzen du irizpide nagusi batean oinarrituta:

Aniztasuna eta hezkuntza bezalako aztergai bati aurre egiteko aniztasunaren ikuspegia ertz desberdinetatik aztertu nahi dugu, horretarako, irakasgai ezberdinetatik abiatuta, ekarpen horietan oinarrituz, ikuspegi zabalagoa eman nahi diogu aniztasunaren gaiari. Horrela, moduluan parte hartzen duten irakasgaietatik haratago joan eta diziplina ezberdinetara zabalduko da proposamena, era askeago eta irekiago batean.

<b><i>Gizarte eta Kultura Ingurunearen ezagutza</i></b>	<b>DIZIPLINARTEKO LANA: ANIZTASUNA ETA HEZKUNTZA</b>
<i>Berta Echeberria</i>	
<b><i>Eskola Inklusiboaren oinarriak</i></b>	
<i>Esti Amenabarro</i>	
<b><i>Informazio eta Komunikazio Teknologiak (IKT)</i></b>	
<i>Nere Amenabar, Jose Miguel Correa</i>	
<b><i>Haur Hezkuntzarako Hizkuntzaren Didaktikaren Oinarriak testuinguru eleaniztetan</i></b>	
<i>Beñat Sarasola</i>	

## 2.-HAUR HEZKUNTZA GRADUARI DAGOZKION KONPETENTZIAK.

Atal honetan, Haur Hezkuntzako Graduari dagozkion konpetentziak biltzen ditugu. Aipatu konpetentziak, modulu honetan garatzen diren jarduera guztien bitartez aintzat hartzen direlarik.

Konpetentziak	Azalpena
<b>G003. IKASKUNTZA- TESTUINGURUAK ETA DIBERTSITATEA</b>	Dibertsitate indibiduala, soziala eta kulturala aitortu eta errespetatzea. Ikaskuntza-espazioak dibertsitate-testuinguruetan diseinatu, arautu eta kudeatzea, betiere kontuan izanik ikasleen hezkuntza-premia bereziak, genero-berdintasuna, ekitatea eta giza eskubideekiko errespetua
<b>G004. BIZIKIDETZA ETA GATAZKEN KONPONKETA</b>	Ikasgela barruan eta ikasgelatik kanpo bizikidetza sustatzea. Bizikidetza demokratikoaren arauak eraikitzean ikasleek parte har dezatela sustatzea eta gatazkak bake giroan konpondu daitezela elkarlanean ahalegintzea. Ikaskuntzaren eta bizikidetzaren testuinguruak sistematikoki behatzen jakitea eta horien inguruan gogoeta egiten jakitea, eta, oro har, ikasleen gaitasunak hezkuntzaren ikuspegitik eta etengabe ebaluatzeko tresna nagusi gisa behaketa erabiltzeko gai izatea.
<b>G009. HAUR ESKOLA ETA IRAKASLEAREN EGINKIZUNAK</b>	Haur-hezkuntzako eskolen antolamendua eta horren funtzionamendua eskatzen dituen ekintzen dibertsitatea ezagutzea. Bizitzan zehar irakaskuntza-lanak hobetzen eta zientzia, pedagogia eta gizarte arloan gertatzen diren aldaketetara egokitzen joan behar duela onartzea.
<b>G010. ORIENTAZIOA ETA TUTORETZA</b>	Gurasoen orientatzaile gisa jardutea, familia-hezkuntzarekin loturik, 0-6 urte bitarteko epealdian, eta ikasle bakoitzaren familiarekin eta gainerako familia guztiekin izaten diren tratu eta harremanetan gizarte-gaitasunak menderatzea. Tutoretza eta koordinazio-lanak egitea tutoretza-ekintzarako proposamenak antolatuz, eta familiekin eta hezkuntza komunitateko beste kide batzuekin elkarlanean jardutea eskolako jarduera ikaslearen gizarte eta familia mailako ingurunearekin harremanetan jartzeko eta hezkuntza-prozesuan eraginkortasun handiagoz eragiteko
<b>G012. HEZKUNTZAN ESKU HARTZEKO</b>	Haur-hezkuntzako ikastetxeei eta bertako

<b>DISEINUA</b>	profesionalei eragiten dieten oinarriko kompetentziak eta egungo gizartean hezkuntzak betetzen duen eginkizuna eta dituen aukerak eta mugak ulertzea. Oro har, hezkuntza prozesuen konplexutasuna eta, bereziki, irakaskuntza-ikaskuntza prozesurena ulertzea, eta curriculum-elementu berriak barneratzea jarrera kritiko eta ekintzaile bat egin ahal izateko, pertsonen, antolamenduen eta gizartearen premia eta eskaerei erantzun ahal izango diena. Kalitatea hobetzearen hezkuntza-zentroetan aplikatu daitezkeen ereduak ezagutzea
<b>G014. HAZKUNDE PERTSONALA</b>	Epealdi honetan neska-mutilen garapen emozionala, soziala eta kognitiboa eta nortasuna ezagutzeko eta sustatzeko gaitasuna izatea.
<b>G015. KOMUNIKAZIO- KOMPETENTZIAK</b>	Komunikazio-kompetentziak aberasteko helburua duten estrategia didaktikoak diseinatzea (ahozkoak, idatzizkoak, ikusmenekoak, gorputzezkoak, afektiboak eta musikalak) garapen integral baten testuinguruan.

### 3.-BURUTU BEHARREKO LANAREN EZAUGARRIAK

#### 3.1. Taldeen egitura eta osaketa

Lau/bost kidez osatutako taldeak eratuko dira, eta horietako kide bat izendatu beharko da koordinatzaile. Koordinatzaile hau izango da irakasleekin harremanetan jarriko den arduraduna, eta edozein komunikaziorako erreferentzia. Taldeen osaketa irakasleek erabakiko dute, zozketaz edo alfabetikoki, beti ere Ordenagailu Taldeak (GO) errespetatuz.

Behin taldea sortu ondoren, lanari buruz hausnarketa egingo duzue: taldearen izena, talde arauak, konpromisoak. Azken urte hauetan talde lanak sortzen dituen arazo eta gatazkak zabaltzen ari direla ikusi dugu. Askotan, erdi ezkutaturik gelditzen dira lana egiten den bitartean eta lana bukatzeko momentuan azaleratzen dira, gauza handirik egin ezin denean. Horregatik, hasierako saio batean, behin taldeak finkatu ditugunean, landuko dugu talde bakoitzak finkatu nahi duen errubrika, non islatu beharko den zer arau edo zer irizpide diren inportanteak talde lana ongi egiteko edota kudeatzeko (ikus I eta II ERANSKINAK).

Taldeko kide guztiek derrigorrez hartu behar dute parte klaseko saioetan, eta baita hortik kanpo burutzen diren jardueretan ere. Hori posible ez balitz, lanen banaketa egin eta irakasle arduraduna jakinaren gainean egon behar da, uneoro.

Zenbait saioetara etortzen ez diren ikasleak taldearen parte izango balira (adibidez, balioztatuta dutelako irakasgairen bat), parte hartu beharko lukete moduluko lanari eskainitako saioetan.

Graduko ikasleek moduluko lana egin beharko dute, baldin eta gutxienez, modulu bateko bi irakasgaitan matrikulatuta badaude. Gainerako kasuetan, ikasleek ez dute moduluko lana egin beharrik izango.

Azkenik, arrazoi zehatzengatik, moduloko lana egin bai baina jardueretara edota klase presentzialetara etorri ezin duten ikasleen kasuan, irakasle taldearen adostasunez onartuko da, horretarako, ikaskuntza prozesua behar bezala bermatu dadin eta gutxienezko presentzia eta jardueren jarraipena erdietsi beharko direlarik.

### **3.2. Lan proposamenak: bloga, narratiba digitala eta egile testua**

Modulu honetan, aniztasuna gai nagusitzat hartzen da eta honen inguruan irakasleek esperientzia eta baliabide ezberdinak eskainiko dituzte, ikasleen artean hausnarketa sustatzeko, bai maila pertsonalean bai taldean. Batzuetan irakurketak eta solasaldi dialogikoak (artikuluak edo liburu atalak), edo ipuinak izango dira. Pelikulak, bideo eta dokumentalak ere ikusi eta aztertuko ditugu. Bestetan, gure ikastetxean nahiz kanpoan garatuko ditugun antzerki eta tailer ezberdinak, erakustaldiak, hitzaldiak edo mahai inguruak izango dira. Saiatuko gara ahal den neurrian kanpoko baliabideak ere erabiltzen (erakusketak, beste erakundeek edo elkarteek egiten dituzten tailerrak, ...). Horrela aniztasunaz hausnartzeko hurbilketa akademikoa nahiz pertsonen bizipenetan oinarritutakoa proposatu nahi dugu.

Moduluan zehar jarduera desberdinak garatzen goazen neurrian, hauei buruzko zuen gogoetak eta hausnarketak, blogaren bitartez publikatzeko eskatuko dizuegu (ebaluagarriak izango dira, kasuan kasu). Batzuetan, gogoeta horiek izaera pertsonala izango dute, hau da bakarka idatziko dituzue, bestetan berriz, taldekoak izango dira, gogoeta kolektiboak, alegia.

Zuen gogoeta horiek, ikasgaietan landuko diren eduki desberdinek eta zuen lan eta gogoetak, azken helburua den, narratiba digital bat osatuko dute. Hemen ikasle taldeak erabateko askatasuna izango du aniztasunaren gaia bideratzeko, izandako esperientzia guztiei buruz edo taldeak hautatzen duenari buruz hausnarketa bat sakonduaz eta aurkeztuaz.

Narratiba digitalarekin batera “egilearen testua” ere aurkeztu behar da, lan idatzi bat. Lan honetan narratiba hori egiteko taldeak burutu duen prozesua eta hausnarketa jaso beharko ditu. Nolabait narratiba osatzeko balio behar du bi zentzutan: alde batetik, narratiba digitalean islatu ezin izan dena azaltzeko, eta bestetik, egindako irakurketekin eta izandako esperientziekin loturak edo harremanak sortzeko. Zuen proposamenaren eta izandako esperientzia nahiz irakurketen artean harreman koherente eta aberatsa sortzea, ongi baloratua izango da.

### 3.3 Moduluaren osagarri izango diren kanpo ekimen eta jarduera sorta

Esan bezala moduloko honek, kanpor eragile zenbaiten presentzia izango du; helburua da aniztasunaren ikuspegi zabalago bat jasotzea eta horrek lotura zuzena dauka beste begirada batzuekin ere. Moduluaren zehar osatzen joango gara eskaintza hori.

<b>TABAKALERA</b>	<b>Urtarrila 31 10:00etatik-12:00etara Tabakaleran</b>	<b>Esti Amenabarro</b>
	<b>Otsaila 7 10:00etatik-12:00etara Irakasle Eskolan (1.4 eta 2.5 gelak)</b>	
	<b>Otsaila 14 10:00etatik-12:00etara Areto nagusian lehen zatia eta Irakasle Eskolan (1.3 eta 2.5 gelak) bestea</b>	
	<b>Otsaila 21 10:00etatik-12:00etara Tabakaleran bertan</b>	

<b>IPUINEN TAILERRA</b>	<b>Otsailaren 10ean</b>	<b>Beñat Sarasola</b>
-------------------------	-------------------------	-----------------------

<b>PAUSOKA ELKARTEA</b>	<b>Otsailaren 18an 12:30etan</b>	<b>Esti Amenabarro</b>
-------------------------	--------------------------------------	------------------------

<b>KIKE AMONARRIZ</b>	<b>Otsailaren 27an</b>	<b>Beñat Sarasola</b>
-----------------------	------------------------	-----------------------

<b>NAIZEN ELKARTEA</b>		
------------------------	--	--

### 3.3. Lan tartekatuak

Lan prozesua jarraitua eta dinamikoa izango da. Ikasgai guztietan, burutuko dugun lana eta, modulu honetan proposatuko diren jarduera osagarriek, denek prozesu hori jarraitua izatea bermatu behar dute, honela, uneoro, lan desberdinak osatzen joango gara. Inportantea da, etengabe zuen esperientzia eta gogoeten inguruko ohar hartzea moduluan sortuko ditugun tresnak hornitzeko.

Lan prozesua ikasleak eraiki eta osagarritu behar du, uneoro, nolabait, lana poliki joango direlarik eraikitzen eta osatzen . Tartean esperientzia ezberdinak proposatuko dira eta hauei buruz hausnarketak egiteko eskatuko da, gero azken ekoizpenetan baliagarri izango direlarik. Prozesuaren zehar, azken narratiba eta entregatzekoa borobildu arte, joan etorriak egin ditzakezue eta inportantea izango da, esperientzia desberdinetan jasoko dituzuen ideia, ohar eta bestelakoak jasotzea, horiek gero lanerako material egokiak

izango dira eta. Egilearen testuan prozesu hau deskribatu eta baloratu beharko da (lana nola eraiki eta osatu den adieraziz), beti saiatuaz egindako ekitaldiak eta landutako testuak edo beste formatuak (irakurketak, bideo eta pelikulak, tailerrak, erakusketak, dinamikak, hitzaldiak, mahai inguruak, ...) harremanetan jartzen.

### 3.3.1 Bloga: esperientzia desberdinetatik sortzen diren ekoizpenak jasotzeko

Irakurketak, kanpoko eragileetatik jasotako esperientziak, gogoeta piztuko dute gure baitan, horietatik abiatuta, sortzen diren ebidentziak blog batean jaso beharko dira, IKT irakasgaietan lantzen den modu berean (honen inguruko zehaztapenak IKTko irakasleak emango dituzte). Esperientzia edo ekitaldi bakoitza taldeka landu behar da eta irakasle-tutoreek aukera izango dute jarraipen bat egiteko. *Batzuetan, gogoeta horiek izaera pertsonala izango dute, hau da bakarka idatziko dituzue, bestetan berriz, taldekoak izango dira, gogoeta kolektiboak, alegia.*

Lan hau egiteko prozedura hauexa izango da:

- a) Blogean, burutuko dugun esperientziari buruzko **ekarpen pertsonala** ekitaldiarekin izenarekin zehaztuko da (ikusitako txosten honetan bertan programaturiko diren ekimen edota esperientzia horiek): adibidez “Tabakalera”, edo “Pausoka”, esate batera
- b) **Taldeko hausnarketak** (taldeko kide batek publikatuko du kasu honetan) “MODULUA” etiketa jarriko zaio.
- c) Bukaeran, ikasleek “post” bat egin beharko dute moduluko lanari eta prozesuari buruzko iritzi eta balorazioa eginaz (gutxi gorabehera bi orrialde, 5.000 karaktere tartek kontaturik).

Hausnarketa hauek, esperientzia horiek bizitu ondoren, egiten den ekarpena da, librea baina, beti ere moduluan landu nahi diren elementuen inguruan jardun behar da, horretarako gutxienezko galdera edo abiapuntu hauek erantzun beharko ditugu:

Zer ikasi dut/dugu aniztasunari buruz? Aniztasunaren aldetik, tailer edo jarduerak esperientzia honek ze ekarpen edo ekarpenak egin dizkigu?
Neukan/geneukan aurre ideien bat aldatu dut esperientzia edo ekitaldiaren ondoren? Nola?
Zein da gehien eragin didan/digun esperientzia edo jarduerak? Zergatik?
Zer sentimendu izan ditut? Zerekin lotzen ditut?
Zerbait ikasi edo aldatu badut/badugu, badakit /badakigu ze prozesu izan dukan/dugun edo zerk erraztu duen?
Zerbait ikasi al dut taldekideengandik? Zer? Zer testuingurutan?

### 3.4. Entregatzeko lanak



Bloga sortzeaz gain, bukaeran ikasle taldeek aniztasuna eta hezkuntza ardatz hartuta bi lan entregatu beharko dituzte, narratiba digital bat eta txosten idatzi bat. Horretarako hiru hilabete izango ditugularik lanerako (otsaila, martxoa eta apirila) eta hasieratik bukaera arte lauhilekoko lau irakasgaiek zenbait ordu eskainiko dizkiote diziplinarteko lanari, aurkezpen eta feedback saioak barne. Gelan lana prestatzeko tartea eskainiko da, IKT irakasgaiaren kasuan gutxiago izango dira.

**Narratiba digital bat:** hemen aniztasunari buruzko hausnarketa islatu behar da. Lehen azpimarratu den moduan, hausnarketa egiteko bi aukera daude. Lehenengoa, “collage” moduko bat egitea, zeinak izandako esperientzia eta ekitaldiei buruzko hausnarketa islatu behar duen. Bigarrena izango litzateke, zuen baitan gehien eragin duen esperientzian sakonduz. Bi kasuetan iraupena berbera da, gehienez 3 minutu.

### **Testu idatzia, “egilearen testua” lana.**

- a) Burutu den narratiba eta proiektuaren presentazio karta izan behar du. Helburua: burutu den lana balioan jartzea. Lanaren justifikazioa. Proposatzen den narratiba digitalaren azalpen edota aurkezpena. Zer aurkezten duzue? Eta zergatik aurkezten duzue hori?
- b) Narratiba sortzeko prozesua: non izan ditugu oztupoak, zer islatu nahi izan duzue, zer lotura egin nahi izan duzue aniztasunaren gaiarekin, ...
- c) Lanean esperientzia edo ekitaldiekin egin diren loturak, egin diren irakurketekin edota ikusi diren bideo, pelikula, eta dokumentalekin sortu dituzuen hausnarketak ... Nolabait integrazio lan bat egin behar duzue da.
- d) Talde lanaren prozesuari buruzko hausnarketa: zer moduz joan da, non egon dira arazoak, nola kudeatu dituzue, errubrikak balio duen ala ez eta zertan, ... nolabait zuen buruari buruzko ebaluazio formatibo bat egin. Abiapuntu bezala errubrika har daiteke.
- e) Ekitaldi edo esperientziei buruz narratiban sartzerik izan ez duzuen baina komentatu nahi duzuen garrantzitsua iruditu zaizuelako.

Testuak 6/8 orrialde izango ditu gutxi gorabehera, 15.000/20.000 karaktere tartean kontatuz. Lanak, forma aldetik eta zaindua eta elaboratua izan behar du. Idazkera akademikoa izan behar du eta erreferentziak eta bestelako baliabideak erabiltzen badira, APA arauak behar bezala bete behar dira.

### **3.5. Aurkezpena eta feed back-a irakasle tutoreekin (prozesuaren ebaluazioa)**

Txostenetan jasotako lan ekoizpena gelan aurkeztuko da gelakideen aurrean, zehaztuta dauden egunetan (prozesuak aurrera egin ahala zehaztuko da), eta horretarako bi eskola egun baliatuko dira, talde denek euren aurkezpenak egin ditzaten. Aurkezpenekin, funtsean, elkartruke horizontala sustatu nahi da, elkarrengandik ikasten jarraitu ahal izateko. Eta asmo berarekin taldeek gainerakoen aurkezpenak ebaluatzeaz gain (ikus III Eranskina), aukera izango dute lauhilekoaren azken asteko “itzultze kritikoen astean” edo

“feedback astean” parte hartzeko non irakasleekin egindako lanaren elkar-trukerako bilera egingo den (III Eranskina).

Aste horretan irakasgai batzuek mantenduko dituzte bere klaseak eta beste batzuk feedback egiteko erabiliko dira. Ahozko aurkezpena lan idatziaren irakurketa huts bihurtu ez dadin, hona irizpide batzuk:

- Ahozko aurkezpenak 20-25 minutu iraungo du (ez gehiago) eta taldekide guztiek parte hartuko dute. Minutu horietan narratiba digitala ere erakutsiko da.

- Azken 5 minututan galderen txanda izango da.

- Aurkezpenerako erabili ahal izango dira proiektorea eta pantaila, zein bestelako baliabideak. Fakultatean bertan ez dauden materialak ere ekarri ahal izango dira nahi izanez gero.

- Orokorrean aurkezpenak Areto Nagusian izango dira, baina talderen batek nahi badu aukera egongo da (ahal den neurrian) aurkezpena beste espazio batean egiteko. Aurkezpenean ere baloratuko da sormena lantzea eta bestelako ereduak erabiltzea lana aurkezteko.

- Aurrez erabili beharko diren baliabideak frogatzea gomendatzen da. Horretarako irakasle arduradun bat izango da aurkezpen aurreko egunetan, ordutegi finko batean, taldeak bertaratu eta euren tresnek ongi funtzionatzen dutela frogatzen laguntzeko. Garrantzitsua da, batez ere, soinua duten bideoak proiektatuko badira hauek aurrez frogatzea.

#### 4.-LAN PROZEDURA ETA EGUTEGIA

Hemen agertzen den irakasgaien banaketa aldakorra izan daiteke eta batzuetan konpartitua (adibidez tailerrak egiten ditugunean, ez du irakasgai bakar batek bere denbora eskainiko nahiz eta koadroan bakar bat agertu).

Gelako saio bakoitzean moduluko lanari ekingo zaio, arduraduna den irakaslearekin lanean. Saio hauetan taldeko **kide guztiek hartu behar dute parte** derrigorrez, eta bertaratzen ez den ikasleren bat balego irakasleari jakinarazi beharko zaio.

<b>1 astea urtarrila 20-24</b>	<b>Moduluko koordinatzaileak moduluaren inguruko informazioa eskainiko du: aurkezpena, helburuak, metodologia, zereginak eta ebaluazioa besteen artean. Taldekatzeen lehen pausuak.</b>
<b>2 astea urtarrila 27-31</b>	Ikasleek lan taldeak osatu behar dituzte. Taldeko fitxa osatu eta koordinatzaileari pasa. Lan kontratua adostu eta gaia aukeratzeko prozesuari ekin.  Tabakalera.
<b>3 astea otsaila 3-7</b>	<b>Eskola inklusiboaren oinarriak: aniztasunaren inguruan, oinarriak finkatu</b>
<b>4 astea otsaila</b>	

10-14	
5 astea otsaila 17-21	Gizarte eta Kulturaren ingurunearen ezagutza
6 astea otsaila 24-28	Informazioa eta Komunikazio Teknologiak
7 astea martxoa 2-6	Haur Hezkuntzarako Hizkuntzaren Didaktikaren Oinarriak testuinguru eleanitzetan
8 astea martxoa 9-13	
	<b>Lanak nola doaz jarraipena: Eskola Inklusiboaren oinarriak saioan</b>
9 astea martxoa 16-20	Gizarte eta Kulturaren ingurunearen ezagutza
10 astea martxoa 23-27	
11 astea martxoa 30 apirila 3	Haur Hezkuntzarako Hizkuntzaren Didaktikaren Oinarriak testuinguru eleanitzetan
12 astea apirila 6-10	
	<b>BLOGeko edukiak (taldekoak eta pertsonalak amaituta). Tutoreari bidali lotura dagokion ebaluaketa egiteko.</b>
14 astea apirila 20-24	Lanak itxi eta entregatu.
15 astea apirilaren 27-30	<p>Apirilaren 27an, Areto Nagusian taldeek euren narratibaren froga egingo dute.</p> <p>Apirilaren 29 eta 30ean Moduloko lanen aurkezpenak Areto Nagusian: 09:00etatik 14:00etara</p>
16 asteartea maiatza 4-8	Feed Back astea: irakasle tutoreekin moduloaren inguruko ebaluazio orokorra

## 5.- EBALUAZIOA

Diziplinarteko egitasmo honen ebaluazio prozesua prestakuntza eta hobekuntza aukera bat izan dadin, hiru ebaluazio ekimen bereizi ditugu:

a) Batetik, txosten idatzia eta horren ahozko aurkezpena baloratu eta kalifikatuko dira. Biak ontzat ematen badira, emaitzak lauhilekoko irakasgaien azken notan %20ko (2 puntu) balioa izango du (1,2 kreditu, alegia).



IKT irakasgaiaren kasuan, %10eko puntuazioa izango du



Bestetik, ikasle bakoitzak ebaluatuko ditu lan prozesuko ibilbidea, lan dinamika, denboraren erabilera... (II Eranskina). Ikasturteko azken astean “itzultze kritikoa” egiteko bi lan saio izango dira, irakasleek eta ikasleek prozesua bera eta ekoizpena aztertzeko eta iradokizunak eta proposamenak luzatu ahal izateko.

Aurkezpen egunean beste taldeen aurkezpenak ere ebaluatu beharko dituzue (III Eranskina).

***I ERANSKINA: TALDEA IZENDATZEKO FITXA EREDUA***

**Taldearen izendura:**

**Taldearen koordinatzailea edo harremanetarako pertsona:**

**Koordinatzailearen korreoa:**

**Lan taldeak baliatuko duen e maila:**

**Lanaren izenburua:**

<b>Izena</b>	<b>Abizenak</b>	<b>Argazkia</b>

*Oharra: Taula hau bere osotasunean osatu eta moduluko koordinatzaileari entregatu behar zaio.*

## II ERANSKINA: talde lanaren inguruan hausnarketa, konpromisoak eta errubrika

Gero eta gehiago aipatzen da, zenbait lanbidetan bezala, ikas-irakaskuntzan ere talde lana ezinbestekoa dela, bai elkarbizitzarako baita lan giro ona izateko. Baina askotan ez da horrela gertatzen, faktore asko sartzen direlako tartean: izaerak, kimika pertsonalak, komunikazio arazoak, ikuspegi edo irizpide ezberdinak, aniztasuna, asertibitate eta enpatia falta, ... Hala ere, pentsatu behar dugu edozein ikastetxetan ongi ezagutzen ez ditugun edo gure gustuko ez diren pertsonekin lan egin beharko dugula, eta ezin izango dugu erabaki honekin bai eta horrekin ez. Askotan teoria ongi dakigu baina gero praktikan arazoak ditugu.

Bestalde, onartu behar dugu horrelako gatazkak sortzea normala dela, gatazkak, bizitza profesionalaren zati natural baitira. Gakoa non dago? Bakoitzak bere burua ongi ezagutzean eta asertibitatea lantzean eta talde bezala egoera horiek kudeatzen jakitean.

Lan hitzarmena Anizastuna Eskola Moduluan 2020ko Urtarrilaren XXXXX

Jarraian sinatzen dugun kontratu didaktiko honetan, guk Aniztasuna Eskolan Modulua osatzen dugun taldekideok, modulu honetako gidan jasotzen diren helburu eta zereginak irakurrita eta argibide guztiak aztertu ondoren, honako hitzarmena sinatzen dugu, erabakimen osoz.

Batetik, benetako talde lanean jarduteko konpromisoa honako adierazleetan zehazten dugu:

1.-

.....  
.....

2.-

.....  
.....

3.-

.....  
.....

4.-

.....  
.....

Honakook osatzen dugu taldea:

***Zein konpromiso hartzen dituzue talde hau osatzen duzuen kideetako bakoitzak?***

1 kidea (izena- bi abizena eta konpromisoak):

2 kidea:

3 kidea:

4 kidea:

Sinadurak (ikasleak eta moduluko irakaslearena)

### III ERANSKINA: moduluko ebaluazioa

1) Moduluak aurreikusiak zituen kompetentziak lortu direla uste al duzue?

2) Moduluaren nondik norakoak azaltzen dituen txostena aproposa dela uste al duzue?  
Ezer aldatuko al zenukete?

3) Nolakoa izan da ikasleen inplikazioa diziplinarteko lanean? Zergatik? (Adibidez: motibatuak egon zarete, galderak egin dituzue, tutoretzei probetxua atera diezue...).

4) Nolakoa izan da irakasleen inplikazioa diziplinarteko lanean? (Adibidez: prestutasuna erakutsi dute, suertatu diren zailtasunak kudeatu dituzte, koordinatuak egon dira, komunikazioa erraztu dute...).

5) Beste lan mota bat egitea proposatuko zenuke? Zein? Edo egin duzuen lanaren inguruan hobekuntzarik planteatuko zenuke? Zeintzuk?



#### IV ERANSKINA: aurkezpenak taldeen arteko ebaluazioa

- Zein taldek ebaluatzen du?

- Nor ebaluatzen duzue?

1) Zer gustatu zaizu aurkezpen honetatik?

2) Zer dago hobetzeko?

3) Besterik?